

EUSKAL NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURAREN SEKTOREETAN IKERTZAILE ETA TEKNOLOGOAK PRESTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2021 (IKERTALENT PROGRAMA)

Helburua

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak prestakuntza bidean dauden ikertzaileentzako programan 12 bekatarako (doktoratu aurreko kontratuak) deialdia egin du, baita teknologoak prestatzeko programan 10 bekatarako ere.

Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:

Doktoratu aurrekoen laguntzen iraupena urtebetekoa izango da eta, urtetik urtera, gehienez 4 urtez luza daitezke. Teknologoentzako laguntzen iraupena bi urtekoa izango da.

Doktoratu aurreko kontratuen urteko lansari gordina 19000 eurokoa izango da lehen urtean, 20000 eurokoa bigarrenean, 22000 eurokoa hirugarrenean eta 28000 eurokoa laugarren urtean. Bestalde, onuradunek 8.000 euroko laguntza osagarria jasoko dute hainbat gastutarako (doktorego matrikula, biltzarretarako asistentzia, egonaldi laburrak, etab), prestakuntza-urte bakoitzeko 2.000 euro izanik.

Teknologoek 14000 euro jasoko dituzte urtean, Gizarte Segurantzako kuotez gain. Bestalde, onuradunek 2.000 euroko laguntza osagarria jasoko dute hainbat gastutarako (biltzarretarako asistentzia, egonaldi laburrak, etab), prestakuntza-urte bakoitzeko 1.000 euro izanik.

Eskainitako proiektuak:

Hautagaiek diru laguntza edozein programatan eska dezakete, eta gehienez 3 proiektu hauta ditzakete.

Eskainitako proiektuen zerrenda deialdiko oinarrietako **I. Eranskinean** kontsulta daiteke.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- Europar Batasuneko herritarra izatea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizilekua duen atzerritarra.
- EAEko udalerriren batean erroldatuta egotea 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera gutxienez.
- Deialdiko I. eranskinean zehazten diren titulazioetako bat edukitzea.
- Doktoratu aurreko beketako bat eskuratu nahi izanez gero, doktorego programa batean onartua izateko baldintzak izatea.
- Titulu hori eskuratzeko ikasketak, eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko bost ikasturte osoak hartzen dituen aldian amaitu izana.
- Teknologoentzako laguntzen kasuan, nekazaritza, arrantza eta elikadura gaietan eskumena duen sailarengandik antzeko ezaugarriak dituen beste bat jaso ez izana.
- Zehapen administratiborik edo penalik ez izatea.

Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

Hautagaiak berak bete beharko du eskaera **II. eranskin**eko ereduaren arabera, eta **2021eko irailaren 13rarte** izango du aurkezteko aukera deialdiko laugarren artikuluan zehaztutako bideetako bat erabiliz. **UPV/EHUren erregistro bulegoak ez dira baliozkoak izango deialdi honetako eskaerak aurkezteko.**

UPV/EHUko TRAMITEA:

Behin eskaera erregistratuta, **UPV/EHU**n eskainitako proiektuetako bat eskatzen duten hautagaiak, alta tramitea errazteko laguntza emanez gero, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute PDF formatuan pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera:

- a. Eskaera egiteko formularioa
- b. Proiektuen hautaketa justifikatzeko memoria
- c. Curriculum vitae
- d. NANaren fotokopia

Harremanetarako (Eusko Jaurlaritza):

Aurrez aurrekoa:

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza
Donostia, 1 – 3. solairua.
01010 - Gasteiz

Kontsultak:

Idoia Sasigain
Telefonoa: 945 01 96 90
Posta elektronikoa: i-sasigain@euskadi.eus

Informazio gehiago:

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2021/ikertalent-programa/web01-tramite/eu/